

Gau ilun batean



Bostekoa

Alex Silva

Esnatu egin naiz. Zarata handiak entzuten dira nire lekutxoaren kanpo aldean. Ez dut ezer ikusten, ez dut leihorik, eta atea itxita dago, betiko moduan. Baina zaratak beldurtu egin nau. Dagoeneko gaua da, goizeko hirurak alde izango da, ilargia zeruaren goi partean distira izango da.

Ez dakit zer dioten, ez dut ulertzen. Ez naiz gai ongi ulertzeko. Baina bat baino gehiago dira. Nire gelakidea ere esna dago, baina nire moduan, koltxoi umelean ezkutatzan saiatzen da. Izara azpian gordetzen gara. Baina dardara nabari da. Oihalek ez dute gure beldurra mozorrotzen. Izan ere, horrelakoak izaten diren bakoitzean, gauza arraroak gertatzen dira. Ez dira inoiz albiste onak izaten.

Bat-batean gure ziegako atea zabaltzen da. Zabal-zabalik dago, baina ia ez da argirik sartzen; ko-



Horrelakoak gertatzen ari dira munduan. Ez da bidezkoa... Noiz arte?. HITZA

rridoreko argia, noski. Ate parean dauden gizonzkoek estaltzen dute. Asko dira. Aurrean, lehen postuan, bat, garaia, gihartsua, gaztea dirudi, baina ez dut ongi ikusten, argi gutxi dago, eta mihi-seen babesean jarraitzen dut.

Nire izena irakurtzen dute, baina ez dut ezer esaten. Ez gara mugitzen. Nire laguna dardarka dago. Negarrez ari dela dirudi. Baina nire arreta lagunarengan

dudala, niregana gerturatu dira gazteak, korrika, presaka, mugimendu bortitzekin, eta horietako batean zaku bat jarri didate buruan, ohetik atera naute, arrastaka. Uste dut pixa egin dudala koltxoian tira egin didatenean.

Lurrera bota naute. Mina sentitu dut, baina gizonzkoen bota gogorak buruaren eta hanken gainean jarri dizkidatenean bai-

no gutxiago. Soka moduko batekin lotu dizkidate eskuak, eta kolpe hotz batez tente jarri naute. Erdi biluzik, blai eginda, burua patata zaku batekin estalita, oinetakorik gabe... Bultzaka iraintzen naute, eta ia korrika gune hartatik naramate. Eskailerak jaistean erori egin naiz. Barre egin dute, gainera. Eta ostikoka jaikiarazi naute. Kanpora iristean lokatza sentitu dut. Lohia nire

oinetan itsastan da. Euria ari du, eta giro hotza da gaurkoa. Dagoeneko, ordea, berdin dio horrek.

Negarrez noa. Ez dakit zergatik. Mina agian? Arimako mina? Min ideologikoa?... Ez dakit.

Kolpe batean, gurdi batera-edo igo naute. Bota, hobe esanda. Burdina ere sentitu dudala esango nuke. Armaren bat, beharbada. Gurdian edo kamioian erori ahala beste gorputz batzuk sentitu ditut. Ez dakit zein diren. Haiek ere urduri daude. Batzuk dardarka, beste batzuk negarrez. Denak bustita gaude dagoeneko, eurien eraginez. Ez da nire pixa usaina nabaritzen. Hala ere, ez nago lotsatuta, ez dakit besteek ere ez ote duten egin.

Mugitzen hasi gara. Gehiago buztitzen gara abiaduraren eraginez. Batzuk otoiitzean ari dira, beste batzuk negarrez, haur bat ere entzuten dut. Nik ez dakit zer egin, urduriegi nago. Oso urduri.

Balaztada zakar bat. Autoa gelditu egin da. Tira egin gaituzte lurrera. Oihuak entzuten dira; orruak. Zarata burrunbatsu bat. Isiltasuna...

Horrelakoak 1936ko gerrara eta Frankismo garaira eramaten gaituzte. Gehienok hori pentsatu duzue. Baina oraintxe, bai, hau irakurtzen ari zaren bitartean, horrelakoak gertatzen ari dira munduan. Ez da bidezkoa... Noiz arte?